



torturaren

prebentzio eta  
salaketarako  
koordinakundea

[www.prevenciontortura.org](http://www.prevenciontortura.org)

## TORTURA ESPAINIAR ESTATUAN: 2017ko TXOSTENA

Elkarren segidako 14. urtez, Torturaren Prebentzio eta Salaketaren Koordinakundea (TPSK) Estatu espainiarrean ezagutu diren torturak, tratu txar eta zaintzapean suertatutako kasuei buruzko urteko kasuen txostena aurkezten du.<sup>1</sup> Txosten berri honetan aurreko txostenetan ezarri diren irizpide berak gorde dira, Estatu honetako torturaren jardutearen bilakaerari buruzko ikuspegia erraztearren. Lan honetan NBEren Hitzarmeneko definizioan biltzen diren salaketak aurkezten ditugu:

***“Tortura gisa ulertuko da pertsonari oinaze edo sufrikario fisiko zein mentala nahita eragiten dion ekintza oro, berarengandik edo hirugarrengatik baten aldetik informazioa edo aitortza lortzeko, ekintza bat egin edo ustez egin duelako zigortzeko edo pertsona hori zein beste batzuk beldurtzeko edo bortxatzeko helburuarekin, edozein motako diskriminazioan oinarritutako arrazoiagatik delako oinaze horiek funtzionario publiko batek edo beste pertsona batek funtzio publikoen jardutean eragiten dituelarik, berak eskatuta edo bere baimenarekin”.***

Tortura eta beste jokabide edo zigor anker, gizagabe edo umiliagarriaren aurkako NBEko Hitzarmena. NBEaren 1984ko abenduaren 10eko Osoko Batzarrean onartua. Espainiar Estatuak berretsia eta 1987ko urrian Espainian indarrean ezarri zena.


**Aurtengo txostenean eraso, tortura edota tratu txarrak jasandako  
1.014 lagunen arteko 224 egoera bildu ditugu**

Bildutako egoerak	Eragindako pertsonak
224	1.014

Eraso hauek funtzionarioen zaintzapean (komisariak, kuartelak, espetxeak edo askatasunik gabeko bestelako zentroak) zeuden pertsonen gainean edota poliziaren esku-hartze egoeretan (manifestazioen errepresioa, etab.) gertatu ziren. Zifra hauek ez dira bat etorriko tortura edota tratu txarren inguruko kausa penalen kopuruarekin, kasu berak kausa bat edo gehiagoren aukera eman dezakeelako. Aurreko urteetan bezalaxe, ez dira kontuan hartu 2017 urtean ezagutu ziren tortura edota tratu txarren inguruan izandako kasu guztiak: batzuk txostenetik baztertu dira eragindako pertsonen eskaera zuzenagatik, beste batzuk jasotako informazioa nahikoa ez zelako edo ez zegoelako behar bezala egiaztatua. Kontuan izan behar da ere Estatuko Segurtasun Indarren edo Espetxe Instituzioetako Funtzionarioen tortura edota erasoaren kasuen kopuru handi bat ez dela sekula salatzen, ez justizia auzitegietan, ez eta beste inolako instantzia publiko edo pribatutan, pertsona migratzaileen edota presoaren kolektiboaren aldetik bereziki, edo etxerik gabekoen gisako kalteberatasun sozial berezietako pertsonengandik, etab.

<sup>1</sup> Txostenak ikusgai: <http://www.prevenciontortura.org>

TPSKak 2004 eta 2017 arteko urteetan aurkeztutako 14 txostenetan 3.602 egoera ezagutu ditugu non 9.085 lagun kaltetuak suertatu ziren



Goiko koadroak azaltzen digu nola salaketek gora edo behera egiten duten joera aipagarriak erakutsi gabe. Gauza bera gertatzen da tortura edo tratu txarren egoerekin, aldakortasun gutxiagorekin bada ere. Honek guztiak datu hauen atzean dauden koiuntura ezberdinei buruz hausnartzera garamatza eta analisi zehatzago batean baloratu beharko da, txosten osoan modu sakonago batean egiten dena. Nabarmendu nahi dugu hemen, iazko datuekin alderatuta, egoeren gorakada. Eragindako pertsona-kopuruaren izugarritzko gorakada ( 61 egoera eta eragindako 541 pertsona), bereziki, Katalunian urriaren 1ean egindako erreferendumarekin lotuta dago. Gogorarazi nahi dugu berriro ere hemen agertzen diren egoerak errealitatearen zati bat baino ez direla, zati mugatu bat txostenean bertan aztertzen ditugun zenbait konturengatik.

LURRALDEA	EGOERAK	ERAGINDAKO PERTSONAK
Andaluzia	34	40
Aragoi	8	9
Asturias	2	2
Kantabria	1	1
Castilla-La Mancha	-	-
Castilla y Leon	2	2
Katalunia	106	619
Ceuta	8	117
Euskal Herria	2	3
*EAE	1	2
*Nafarroako Foru-Erkidegoa	1	1
Extremadura	1	1
Galizia	7	12
Illes Balears	7	12

Kanariar uharteak	3	4
La Rioja	-	-
Madril	21	102
Melilla	10	20
Murtzia	6	26
Pais Valenciá	6	24
GUZTIRA	224	1.014

Hemen aurkeztu dugun lurralde-banaketa hau zabaldu egiten da txostenean, herrialdeka banakatzen delarik, egoera eta salaketa zehatzak banaka-banaka ezagutzen direlarik.

## 2. Pertsona erasotuaren egoeraren arabera banaketa:

ZIRKUNSTANTZIAK	EGOERAK	PERTSONAK
Atxiloketa inkomunikatua	-	-
Mobilizazio sozialak	86	618
Migratzaileak	56	287
Pertsona presoak	58	59
Adingabeko pertsonak	13	16
Bestelako egoerak	31	61

Hirugarren urtez jarraian ez da inolako tortura salaketarik iritsi atxiloketa inkomunikatuagatik. Hala ere, atxiloketa inkomunikatuaren figurak bere horretan jarraitzen du eta, atxiloketa mota honek, tratu umiliagarria eta txarra ere ondorioztatzen duenez, berriz ere, bere behin betirako indargabetzea exijitzen dugu. Bestalde, aurreko urteko txostenarekin alderatuz migratzaile erasotuen kopurua handitu dela ikusten dugu, azken urtean zenbait internamendu zentrotan izandako protesten errepresioaren ondoriozko tratu txar kolektiboekin lotzen duguna.

Azkenik, aurreko urtearekin alderatuz, mobilizazio sozialen inguruko erasoen salaketen gorakada ikusgarria nabarmendu nahi dugu. Datu honek erakusten du txosten honetan urriaren 1ean Katalunian izandako erreferendumaren inguruan poliziaren esku-hartzeak duen inpaktua.

## 3. Funtzionario salatuen arabera banaketa:

Talde erasotzailea	Egoerak	Pertsonak
Polizia Nazional espainiarra	82	551
Guardia Zibila	41	338
Polizia Autonomikoak	19	26
<i>Mossos d'Esquadra</i>	16	22
<i>Ertzaintza</i>	2	2
<i>Polizia Forala</i>	1	2
Udal-poliziak	24	40
Espetxe-funtzionarioa	57	58
Adingabekoen zentroak	2	2
Beste ( <i>Bartzelonako portu-polizia</i> )	1	1

Koadro honek mobilizazio sozialak eta pertsona migratzaileak aipatutakoan ikusten

genuena baieztatzen du: kategoria hauetan eragindako pertsonen gorakadak dakar istiluen aurkako poliziaren eta mugen zaintza eta atzerritar-funtzioetan diharduten polizien (Polizia Nazional espainiarra eta Guardia Zibila) aurkako salaketan gorakada.

Haatik, egoeren eta espetxean eragindako pertsonen kopuruak –eta, beraz, espetxe-funtzionario salatuena- beste kategoriak baino egonkorragoa mantentzen dira. Datu honek erakusten diguna da espetxe barneko tortura eta tratu txarren arazo endemikoa mantentzen dela, espazio horien opakotasun eta zigorgabetasunak bere horretan ere jarraitzen dutelako.

Aurreko urteetako txostenekin alderatuta berritasun bakarra, “Beste” atalean Bartzelonako portu-poliziari buruzko salaketa agertzea izan da.

Txosten osoan, honetaz gain, beste koadro batzuk agertzen dira non askatasun gabeko espazioetako (espetxeak, Internamendu Zentroak, polizien komisariak, Guardia Zibilaren kuartelak, etab.) egoera ezagunak biltzen diren.

Hala ere, aurtengo txosten honetan, urriaren 1ean Katalunian izandako erreferendumarekin lotutako gertakizunak duten garrantzia kontuan hartuta, azken taula bat erakutsi nahi dugu, polizien arabera jasotako salaketak agertzeko:

#### 4. Katalunian 2017ko urriaren 1ean izandako mobilizazio sozialekin lotutako egoerak eta eragindako pertsonak:

Talde erasotzailea	Egoerak	Pertsonak
Polizia Nazional espainiarra	39	336
Guardia Zibila	22	205

Taula honetan agertzen diren datuak Katalunian gertatutako 60 egoerari (538 pertsonari eraginda) eta Madriden gertatutako egoera bati (3 pertsonari eraginda) dagozkie (azken honetan erabakitze eskubidearen aldeko kontzentrazio bat izan zen eta salaketa Polizia Nazional espainiarraren aurkakoa). Lehenago aipatu bezala eta, beraz, jakina denez, “Biktimaren zirkunstantziak” atalean egoerak eta eragindako pertsona guztiak “Mobilizazio sozialak” atalari esleitu zitzaizkien.

#### 5. Espainiar estatuko zainketa peko heriotzak 2017an:

2016ean Segurtasun Indarren edo beste zainketa publikoko pertsonen pean zeuden, poliziaren parte-hartzeren baten ondoriozko (pertsekuzio baten ondorioz, adibidez) 55 pertsonen heriotzaren berri izan genuen. Torturaren Prebentzio eta Salaketaren Koordinakundearen (TPSK) ditugun datuen arabera.

2001eko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31raino zirkunstantzia hauetan suertaturiko 705 heriotzaren ziurtasuna izan dugu. Heriotza hauetako askok ez dutela gaitzespen penalik merezi eta batzuk saihestezineko istripuekin lotzen direla baldin badakigu ere, uste dugu beste batzuk utzikariak eta zainketa pean dauden pertsonen osasun-eskubideen gaineko akatsek eragindakoak direla, edota baldintza osasun-higieniko zehatzek. Honek guztiak egoera hau noiz eta nola amaituko den galdetzera garamatza. Baina gaitzespen penalaz harago, segurtasun-funtzionario publikoen zainketa pean gertatzen diren heriotzen ardura morala Estatuari dagokio.

Gure txostenean heriotzen bi talde nagusi bereizten ditugu: askatasun gabezia gertatutakoak (36 pertsona) eta bestelako esparruetan gertatutakoak (19 pertsona), barne hartuta atal honetan bai bide publikoa, nola itsasoa edo etxe partikularrak, heriotza Estatuko Segurtasun-Indarren (ESI) parte-hartzeak eragindakoak direnean.

Heriotzaren unean zainketaren ardura duten gorputzei dagokionez, 2017ko datuak honako hauek ditugu:

## 2017ko heriotzak zainketa pean

Taldea	Heriotzak
Espetxe-funtzionarioak	27
Polizia Nazional espainiarra	4
Guardia Zibila	10
Mossos d'Esquadra	8
Udal-poliziak	4
Adingabeen zentroetako funtzionarioak	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>55</b>

Gainera, txostenari azterketa/analisi monografiko batzuk erantsi zaizkio, non TPSKrentzat azken urte honetan bereziki kezkarriak diren eremuak aztertzen diren. Horien artean, lehenik, azterlan bat "tortura-eragile" gisa defini litezkeen bestelako egoera batzuen inguruan, zeinetan Konbentzioaren definizioaren irizpide guztiak betetzen ez badira ere, zainketa peko pertsonak jasotako kalte fisiko edota psikologikoaren existentzia aurkitzen baitugu nahiz eta inongo pertsona zehatzaren parte-hartzerik egon ez edo tratu txarren definizio zehatzean sartu ez, pertsonaren duintasunaren degradazioa dakartelako. Hauetako egoera bat Archidona II-ko espetxean gertatu zen, non inauguratu baino lehenago ere, behin-behineko Atzeritarrentzat Internamendu Zentru (espainieraz, CIE) gisa egokitu eta 500 pertsona migratzaile sartu baitzituzten. Bigarrenik, legez kanpokotzat jotzen dugun egoera honi buruz artikulu monografiko bat aurkezten dugu ere. Hirugarren ikerlanak urriaren 1ean Katalunian gertatutakoa du ardatz eta egun hartan izandako poliziaren bortizkeriaren analisisa egiten da.

2017ko txosten osoa (azterlan guztiekin), laburpena honekin batera, gure web-orrian (<http://www.prevenciontortura.org>) izango da eskuragai aurkezten den egunetik aurrera.

Barcelonan, 2018ko ekainaren 7an.

### **TPSK honako entitate hauekin osatuta dago:**

ACAT (Acció dels Cristians per l'Abolició de la Tortura) / Alerta Solidaria / APDH Andalucía / Asociación para la Defensa de los Derechos de la Infancia / Asociación Apoyo / Asociación Concepción Arenal / Asociación Contra la Tortura / Asociación Libre de Abogadas y Abogados de Madrid / Asociación Libre de Abogadas y Abogados de Zaragoza / Associació Memoria contra la Tortura / Associació Catalana per a la Defensa dels Drets Humans / CAES (Centro de Asesoría y Estudios Sociales) / Campaña por el cierre de los CIE / Centro de Documentación Contra la Tortura / Comissió de Defensa del Il.lustre Col.legi de l'Advocacia Barcelona / Comissió de Defensa del il.lustre Col.legi d'Advocats de Girona / Comisión de Derechos Humanos del Ilustre Colegio de Abogados de Balears / Comisión Legal Sol / Comité Anti-Sida de Lugo / Coordinadora Contra la Marginación de Cornellá / Coordinadora de Barrios / Coordinadora Estatal de Solidaridad con las Personas Presas / Esculca (Observatorio para a Defensa dos Direitos e Liberdades) / Etxerat! (Euskal Errepresaliatu Politikoen Elkarte) / Exil / Federación de Asociaciones de Loita contra a Droga / Federación Enlace / Grupo de Acción Comunitaria (CAC) / Grupo de Derechos Civiles 15M de Zaragoza / Independientes / Iridia. Servicio de Atención y Denuncia ante situaciones de Violencia Institucional / Jaiki-Hadi / Justicia y Pau / Observatori Sistema Penal y DD. HH. / Obra Mercedaria de Valencia / Oteando (Observatorio para la defensa de los derechos y las libertades) / / Salhaketa Bizkaia / Salhaketa Gasteiz / Salhaketa Nafarroa / SOS Racisme Catalunya / Subcomisión Penitenciaria del CGAE / Xustiza e Sociedade de Galicia.